

EUSKARA BATZORDEAREN MEMORIA:

.....

- Gure batzordekide den Gontzal Aipuruak Bizkaiko Abokatuen Bazkuneko Gobernu Batzordean parte hartzen du (2.006ko azaroatik aurrera) eta Aitzol Aslak “ Pedro Ibarretxe Praktika Juridikorako Eskola”ko zuzendaria da (2.008-2.009 ikasturtetik aurrera).

.....

OHARRA: Hona hemen gure Euskara Batzordeak burututako lanak, Bazkuneko Web orrian agertzen den azken memoriatik (“Memoria 2.008”) gaur arte:

(2.009-2010 Ikasturtean)

- 2.009ko irailaren 16an: Hasiera eman genion ikasturte berriari, eta berriro eusten genion “ ***Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea nahitanahiez!***” kanpainari.

- 2.009ko irailaren 30an, Bizkaiko Abokatuen Bazkuneko Euskara Batzordea Bilboko Epaitegi-barrutiko Euskara Batzordearekin bildu zen, gure egoitzan.

- 2.009ko urriaren 8an gure batzordekide den Irantzu Getxoko Epaitegi-barrutiko Euskara Batzordearekin bildu zen, Getxoko epaitegietan.

- 2.009ko azaroaren 11an, gure Euskara Batzordea (Jaime, Txema, Elixabete eta Gorka) Barakaldoko Epaitegi-barrutiko Euskara Batzordearekin bildu zen, Barakaldoko Epaitegietan.

- 2.009ko abenduaren 5ean, “ ***Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea nahitanahiez!***” kanpaina “ *44. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka*”-ra eraman zuten Euskara Batzordekide diren Bea, Elixabete eta Gorkak.

- 2.010ko urtarrilaren 13an, Euskara Batzordeak (aho-batez) eskatu zion Bizkaiko Abokatuen Bazkunaren web orria euskaraz izan dadila.

-2.010ko martxoaren 25ean, “ ***Afari Juridikoa***” Patxi Lopezen ***Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburua den Idoia Mendiarekin.***

(2.010-2.011 ikasturtea)

-2.010eko irailaren 29an: **“K 2.000”** eta Euskara Batzordearen arteko bilera. Haiek proposatu ziguten *“Arratsaldero”* programan parte har dezagun, dohainik. Guk *euskaldunon Hizkuntza eskubideei buruzko* iragarkia ETBn eskatu genien, gure lanaren truke. Erantzunaren zain geratu ginen. (Dena den, datorren astean gutariko bik parte hartuko zuten, inolako konpromisorik gabe, *“Arratsaldero”* programan **“Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea nahitanahiez !”** gaia jorratzeko.)

-2.010eko urriaren 6an, gure Euskara Batzordekide diren Jaimek eta Beak parte hartu zuten ETB-lean *“Arratsaldero”* programan, **“Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea nahitanahiez!”** hitz egiteko.

-2.010eko azaroaren 17an, lehendabiziko aldiz *“Arratsaldero”* programan, (E.T.B.lean) Bizkaiko Abokatuen Bazkunak sinatutako esaldiak agertu ziren (*Euskaldunon hizkuntza eskubideak bultzatuz, Justizia Administrazioan*).

2.011eko otsailaren 3an, *“Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea, nahitanahiez !”* kanpaina barruan, gure Euskara Batzordea Bilboko Udalarekin bildu zen.

(Udalaren partetik, Ana de Castro – Euskara zinegotzia- Jon Bilbao- Euskera zuzendaria- eta beste gizon batek; eta gure partetik, Elixabete , Bea , Jaime eta Gorkak parte hartu zuten.)

2.011eko otsailaren 14an, *“Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea, nahitanahiez !”* kanpaina barruan, gure Euskara Batzordea E.A.E.ko Fiskal nagusia den Juan Ramón Calparsoro Damián jnarekin bildu zen. (Gure Euskara Batzordearen partetik, Gontzal, Aitzol eta Jaime-ek parte hartu zuten.)

2.011eko otsailaren 24an, *“Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea, nahitanahiez!”* kanpaina barruan, gure Euskara Batzordea LAB sindikatuarekin bildu zen. (Gure Euskara Batzordearen partetik Beak parte hartu zuten).

Bilbon, 2.011ko martxoaren 18an

Gorka Kuartango-k

(Bizkaiko Abokatuen Bazkuneko Euskara Batzordekidea)